

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

#### **Gasteizko Udalaren eskumen-esparruan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantzaren behin betiko onespena**

2017ko martxoaren 24an egindako ohiko osoko bilkuran eman zion hasierako onespena udalbatzak Gasteizko Udalaren eskumen-esparruan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantzari. Ez denez inongo erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu horren inguruan, erabaki hori behin betikotzat jo zen 2017ko ekainaren 10ean, eta, horrenbestez, indarrean jar dadin, ALHAOn argitaratu beharra dago, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko uztailaren 7an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*

#### Eranskina

#### **Gasteizko Udalaren eskumen-esparruan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoa arautzen duen udal ordenantza**

##### Zioen adierazpena

Udalen ardura da Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan hori garatzeko xedapenetan aitortzen zaizkien eskumenak gauzatzea, beren gizarte-zerbitzuen bitartez.

Lege horrek, 42.2 artikuluan, udalei aitortzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzari bere zuzeneko ekintzaren eskumen-esparruan aitortzen zaizkionak izan ezik.

Gasteizko Udalak gizarte-zerbitzuen alorreko zerbitzu propioak antolatze aldera erregelamenduak egiteko ahala baliatzen du, eta bere eskumeneoak diren gizarte-zerbitzuen euskal sistemako zerbitzuak planifikatzen ditu bere lurralde-eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen plan estrategikoan, 2016ko uztailean onetsitako Araba Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapan finkatutako plangintzan eta, halakorik denean, autonomia- eta lurralde-eremuko sektore-plan eta plan berezietan xedatutakoaren ildotik.

Marko horretan, orobat onartzen du Gasteizko Udalak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako Zerbitzuen Katalogoan ezarritako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoa —Gasteizko udalerrian— gizarte-zerbitzuen udal sarearen bitartez eskainiko direla, bere eskumeneo egokitzen direlarik, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean jasotzen den eskumen-banaketaren ildotik eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren IV. kapituluaren aurreikusitakoa oinarritzat harturik.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 15eko 12/2008 Legeak, 16. artikuluko d) puntuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio ekonomikoen artean ezartzen ditu hauek: Zerbitzu pertsonalekin lotutako banan-banako prestazioak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpoko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak, alegia, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan erabiltzaileak bere eskubidez lor dezakeen prestazio edo zerbitzuaren antzeko ezaugarriekiko prestazio edo zerbitzu batez baliatzeko aukera emateko xedea dutenak; betiere, beharrezkoa da sistema horretan sartzen diren zerbitzuen esparruan prestazio edo zerbitzu hori ezin aldi batez bermatzea, eskaintza aski zabala ez izateagatik.

Gaur egun, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordenantza propio baten bitartez arautzeko premia ikusten du Gasteizko Udalak.

## I. titulua Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako udal prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko erregimen juridiko eta ekonomikoa arautzea du xede udal ordenantza honek, udal-eskumeneko zerbitzuei dagokienean.

Hau da, ordenantza honen gai diren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak Udalaren gizarte-zerbitzuei kanpoko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuei eta adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuei lotzen zaizkie —zainpeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak—, Udalaren gizarte-zerbitzuen markoan aldi batez zerbitzu horietara sarbidea izatea bermatzerik ez dagoen neurrian, nahiko estaldurarik ez izatearen ondorioz.

Aldi bateko egoera hori kroniko bihur ez dadin, Gasteizko Udalak konpromisoa hartzen du gehienez hamar hilabeteko epean, ordenantza hau onesten denetik, zuzenbide subjektibo horri zuzeneko udal estaldura publikoa emateko beharrezko diren zerbitzu, baliabide eta instalazioen zuzeneko kudeaketa publikorako plan bat koordinatu eta kudeatzeko. Plan hori guztiz gauzatzeak ez du jo beharko 2021eko abenduaren 31tik harago.

2. Delako prestazio ekonomikoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratzen da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoaren ildotik, zeinek, 22. artikuluan, sistema horren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen baitu, eta gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren ildotik, zeinek I. eranskineko 3.4.1 fitxan sartzen baitu.

3. Aurreko paragrafoan aipatutako legeetan xedatzen denak arautuko ditu prestazio ekonomikoa emateko baldintzak eta hori eman eta aplikatzeko prozedurak.

4. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa besterekin bateragarri izango da, muga hauekin:

Mendetasun-arriskuan dauden pertsonak —23 eta 24 puntu, MBBan—, I. graduako mendetasuna aitortua dutelarik, udal-eskumeneko zerbitzuei lotutako gehienez bi zerbitzu edo prestazio ekonomiko jaso ahal izango dituzte batera.

Gehieneko muga hori hauetatik aparte ulertu behar da:

a) salbuespen-egoerak, Gasteizko Udalak eman beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak dagokienez. Zirkunstanziek hala eskatzen dutelarik, eta txosten teknikoek hala baloratu eta justifikatzen, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak aukera izango du:

— zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonen hori eskuratzen uzteko.

— ordenantza honetan bateragarri izatea aurreikusten ez den zerbitzu edo prestazio ekonomikoak bateragarri egiteko, edo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen

zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuko zerbitzu eta prestazio ekonomikoak bateragarri egiteko.

b) gainera, arnasa hartzeko zerbitzuak bateragarri egiteko aukera, arnasa hartzeko zerbitzu motaren arabera bateragarritasun horretarako ezarritako baldintzetan.

c) gainera, telelaguntza-zerbitzua bateragarri egiteko aukera, bateragarritasun horretarako ezarritako baldintzetan.

## 2. artikulua. Definizioa

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak, Gasteizko Udalak eskaini beharreko zerbitzuei lotzen zaielarik, definizio honi erantzuten dio:

Udalaren gizarte-zerbitzuez kanpoko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuetara eta adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuetara —zainpeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak— sartzeko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aldi baterako prestazio ekonomikoa da, zerbitzu horien kostua finantzatzen laguntzea helburu duena, beti ere baldin eta haietara sartzeko ebazpena ematen den unean prestazio ekonomikoa lotua dagoen zerbitzuko bete gabeko lekuak esleitzeko zerrendan itxoitzen dagoen beste eskatzailek badago.

Horri dagozkionetarako, gizarte-zerbitzuen udal saretik kanpokotzat joko dira sare horretan integratuta ez dauden zerbitzu eta zentroak, ulerturik integratuta daudela Gasteizko Udalak zuzenean nahiz zeharkako kudeaketa dela medio nahiz beste entitate batzuekiko ituna, hitzarmena edo kontratua dela medio eskaintzen dituen zerbitzuak.

## 3. artikulua. Izaera eta ezaugarriak

1. Udal ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoa eskubide gisa eratzten da mendetasun-arriskuan dauden edo I. graduko mendetasuna aitortua duten pertsonentzat, hori eskuratu ahal izateko berariaz arautzen diren baldintzak betetzen badituzte, eta, beti ere, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzua banakako arretako programan jasotzen bada, eta Udalaren erreferentziako gizarte-zerbitzuan baliabide egokitzen baloratzen.

2. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak ezaugarri hauek ditu:

a) Mendetasun-arriskua —23 eta 24 puntu, MBBan— nahiz I. graduko mendetasuna egokitzen delarik aitortzen da.

b) Izaera finalista du, eta, hortaz, aurreko artikuluan prestazio ekonomikoaren helburutzat jo diren horiei lotutako gastuak estaltzeko baliatu beharko da.

c) Aldi baterako izaera du, gehienez urtebetekoa, aldi horren barruan zerbitzurako sarbidea bermatu beharko baitu Udalak, bere gizarte zerbitzuen barruan.

d) Besterenezina da, eta, beraz, ezin da:

— Betebeharren berme gisa eskaini.

— Osorik nahiz partez besteri laga.

— Konpentsazio edo deskontuaren objektu izan, salbu eta prestazio gisa oker jasotako diru-kopuruak itzularazteko edo Udalaren gizarte-politiken kudeaketan eskudun den sailak eskaintako prestazio edo zerbitzuak direla eta onuradunak Gasteizko Udalarekin duen beste edozein zor ordainarazteko.

— Atxikipen edo bahituraren objektu izan, salbu eta aplikatzekoa den Estatuko legedi orokorrean jasotzen diren kasuetan eta aurreikusitako mugekin.

e) Izaera subsidiarioa du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman integratutako zerbitzuen aldean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal

Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan aurreikusitakoaren ildotik.

Izaera subsidiario horrek, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, berekin dakar ezin dela lehentasunezko baliabide gisa seinalatu banakako arretako programaren markoan.

#### **4. artikulua. Prestazio ekonomikoaren eta zerbitzuen arteko bateragarritasun- eta bate-raezintasun-erregimena**

1. Lotzen zaion zerbitzua bateragarri den zerbitzu berekin izango da bateragarri ordenantza honetan arautzen den zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, Mendetasun-egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, baita, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte-zerbitzuak eta diru-prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere, arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren 50. artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Prestazio ekonomikoa bateragarri izango da Eusko Jaurlaritzak ematen duen telelaguntza-zerbitzuarekin, salbu eta adinekoentzako ostatu emateko zerbitzura sartzeko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bada.

3. Prestazio ekonomikoa bateragarri izango da prestazioaren titularra udal-eskumeneke edozein zerbitzutan bete gabeko lekuak esleitzeko zerrendan sartzearekin, adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuak —zainpeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak— eta eguneko arreta-zerbitzuak barne, eta ez du kenketarik eragingo baremazioan edo lekua eskuratzeko orduan.

## **II. titulua**

### **Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak, sartzeko baldintzak, eta betebeharrak**

#### **I. kapitulua**

##### **Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen titularrak**

#### **5. artikulua. Eskubidearen titularrak**

1. Mendetasun-arriskuan dauden edo I. graduko mendetasuna aitortua duten pertsonak izan ahalko dira ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoaren titular, horiek eskuratzeko baldintza orokorrak nahiz berariazkoak betetzen dituztelarik —Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitakoaren ildotik, zeinek, 22. artikuluan, sistema horren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzan baititu—.

2. Gasteizko Udalak ematen duen babes-maila osagarria eskuratzetik izango dute artikulua honetako 1. paragrafoan aurreikusitakoa betetzeaz gain egiaztatzen dutenek mendekotasun-egoera aitortzeko lehen eskabidearen dataren aurreko hiru urteetan, jarraian, udalerrian erroldatuta egon zirela eta benetako bizilekua bertan izan zutela. Era berean, babes-maila osagarri hori eskuratzetik izango dute mendekotasun-egoeraren aitopenen dataz geroztik hiru urtez jarraian udalerrian erroldatuta egon diren eta benetako bizilekua bertan izan dutenek, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren aurrean egiaztatzen dutelarik.

#### **II. kapitulua**

##### **Betebeharrak**

#### **6. artikulua. Eskatzaileei galda dakizkiekeen baldintzak**

Ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoa eskuratzekotan, baldintza hauek bete beharko dituzte aurreko artikuluan definitu diren pertsonak:

a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara sartzeko baldintzak bete, baita prestazioa lotzen zaion zerbitzura sartzeko baldintza propioak ere.

b) Banakako arretako programa bat edukitzea, non jasotzen den lotuko zaion zerbitzua, eta Udaleko erreferentziako gizarte-zerbitzuak baliabidearen egokitasuna baloratzea.

c) Gasteizen erroldatuta egotea eta benetako bizilekua bertan izatea prestazio ekonomikoa eskuratzeko tramitazioa egiteko dokumentazio osagarria aurkezten den egunean. Babes-maila osagarria eskuratzeko, erroldaren eta benetako bizilekuaren inguruan aurreko artikuluko 2. paragrafoan adierazitako aldiak bete beharko dira gainera.

d) Hurrengo artikuluan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituen zerbitzu edo zentro batean lekua dutela egiaztatzea.

e) Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak eskatzen dien informazioa eman eta dokumentazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoa eman ala ukatu erabakitzeke beharrezko izanez gero.

Eguneko arreta-zerbitzu bateko erabiltzaile batek zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzen duelarik gizarte-zerbitzuen udal saretik kanpoko adinekoentzako ostatu emateko zerbitzu batean hiru hilabetetik beherako aldi baterako sartzeko, lekua gorde ahal izango du eguneko arreta-zerbitzuan, baldin eta zerbitzu horri dagokion prezio publikoaren ehuneko 90 ordaintzen badu adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuko egonaldiaren lehen egunetik.

#### **7. artikulua. Zerbitzu edo zentroari galda dakizkiokeen baldintzak**

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Behar den funtzionamendu-baimena edukitzea, Arabako Foru Aldundiak emana, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 41.10 artikuluan baimendu, ikuskatu, erregistratu eta homologatzearen arloan aurreikusten diren eskumenen markoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu sozialak baimendu, erregistratu, homologatu eta ikuskatzeko arauak biltzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 dekretuarekin bat etorritik, oinarritzat harturik zerbitzu edo zentro motaren arabera dagozkion baldintza materialak, funtzionalak eta langileen arlokoak betetzearen egiaztapena.

b) Behar den akreditazioa edukitzea, Arabako Foru Aldundiak emana, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari lotutako zentro edo zerbitzu gisa jarduteko. Akreditazio horren markoan, zentro edo zerbitzuari galdutako zaio zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten markoan bertara sartzeko diren pertsonetik harremana formalizatzeko kontratua mugarik gabea izan dadila, nahiz eta hasierako probaldi bati lotua egon.

c) Gasteizko udalerrian kokatua egotea.

#### **8. artikulua. Zerbitzua edo zentroa aldatzea**

1. Baldin eta onuradunak edo, halakorik bada, haren legezko ordezkari edo izatezko zainzaileak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa lotuta dagoen zerbitzu edo zentrotik beste batera aldatu nahi izanez gero —izaera bereko beste batera sartzeko, eta hura ere gizarte-zerbitzuen udal saretik kanpoko—, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari eskatu beharko dio baimena, eta, aldi berean, prestazio ekonomikoa mantentzen dadila. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko du, aldatu nahi duen zerbitzu edo zentroarekin sinatutako kontratu edo aurrekontratu berria erantsita. Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saileko zuzendariak gehienez 30 egun naturaleko epean ebatziko du eskabidea —aurkezten den egunetik kontatuta—, eta administrazioaren isiltasuna egokituz gero, baimena emandakotzat joko da.

2. Zerbitzu edo zentroz aldatzeko eskabide horrek ez du berekin ekarriko prestazioa iraungitzea, baldin eta zerbitzu edo zentro berriak aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta zerbitzu edo zentroz aldatzeak ez badakar berekin ematen den arretan inongo etenaldirik egitea.

## III. kapitulua

## Prestazio ekonomikoari lotutako betebeharrak

**9. artikulua. Betebeharrak**

Izaera orokorrarekin, prestazio ekonomikoaren titularrak edo, halakorik bada, haren legezko ordezkari edo izatezko zaintzaileak betebeharrak hartzen ditu bere gain, prestazio ekonomikoa eskuratzen duelarik:

a) Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, zertarako eman den, horretarako eta ez bestetarako baliaiztekoa, betebeharrak hori berariaz arautzen den moduan.

b) Eskuratu ondoren, eskuratzeko baldintzei eustekoa, prestazioaren titular den denbora guztian.

c) Mendetasun-arriskuaren egoera edo I. graduko mendetasuna aitortzeko kontuan izan den egoeran edozein aldakuntza gertatuz gero, hori komunikatzeko —gehienez 15 egun naturaleko epean, gertatzen den egunetik—, baita prestazio ekonomikoari eusteari edo horren zenbatekoari dagokionez eragina izan lezakeen beste edozein aldakuntza ere, ahalmen ekonomikoaren zehaztapenean eragin lezaketenak barne.

d) Galdatzen zaion informazioa eman eta dokumentazioa aurkeztekoa, prestazio ekonomikoa kudeatzeko beharrezko izanez gero.

e) Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari prestazio ekonomikoa zein baldintzatan erabiltzen den egiaztatzen uztekoa.

f) Behar ez bezala jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea, edo jaso behar ez zuten diru-kopurua.

g) Prestazioak duen helburuaren ondorio direnak oro.

h) Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroari zerbitzuaren erabileraren jarraitutasunari buruzko datuak eskatzeko baimena ematekoa.

i) Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, oso-osorik, kontratatutako zerbitzu edo zentroaren kostua estaltzeko baliaiztekoa, eta baldintza hori betetzen dela urtero egiaztatzeko, urteko lehen hiru hilabeteetan horretarako behar diren agiriak eta aurreko urtean izandako benetako gastuaren justifikazioa aurkeztuz.

j) Zentro edo zerbitzuz aldatzekotan, horretarako baimena eskatzeko, ezarritako moduan.

## III. titulua

## Prestazioen erregimen ekonomikoa

**10. artikulua. Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa finkatzea**

Hauetako izango dira mendetasun-arriskuan edo I. graduko mendetasun-egoeran daudenen zeko gehieneko zenbatekoak:

a) Ostatu emateko zerbitzuak:

— Oinarrizko babes-maila, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten guztiei aplikatuko zaiena: 426,00 euro hilean.

— Babes-maila osagarria, 72. artikuluan ezarritako moduan eroldaren eta benetako bizilekuaren arloko baldintzak egiaztatzen dituztenei Gasteizko udalerrian aplikatuko zaiena: 805,00 euro hilean.

b) Eguneko arreta-zerbitzuak:

— Oinarrizko babes-maila, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten guztiei aplikatuko zaiena: 300,00 euro hilean.

— Babes-maila osagarria, 7.2. artikuluan ezarritako moduan eroldaren eta benetako bizilekuaren arloko baldintzak egiaztatzen dituztenei Gasteizko udalerrian aplikatuko zaiena: 508,00 euro hilean.

#### **11. artikulua. Prestazio ekonomikoen banako zenbatekoa zehaztea, ahalmen ekonomikoaren arabera**

1. Pertsona bakoitzari egokituko zaion prestazio ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko, ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan, eta Gasteizko Udalak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalaren arabera baloratuko.

2. Onuradun bakoitzari aitortuko zaion prestazio ekonomikoaren zenbateko banakatua ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen gehieneko zenbatekoari —aurreko artikuluan adierazitakoari— artikulua honetako aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulaturako ahalmen ekonomikoren araberrako ondorengo portzentajeak aplikatuz zehaztuko da:

<b>BANAKAKO URTEKO AHALMEN EKONOMIKOA</b>	<b>EHUNEKOA</b>
LGSen ehuneko 1.050etik gorakoa	ehuneko 40
LGSen ehuneko 900,01etik 1.050era artekoa	ehuneko 50
LGSen ehuneko 750,01etik 900era artekoa	ehuneko 60
LGSen ehuneko 600,01etik 750era artekoa	ehuneko 70
LGSen ehuneko 500,01etik 600era artekoa	ehuneko 80
LGSen ehuneko 400dik 500era artekoa	ehuneko 90
LGSen ehuneko 400dik beherakoa	ehuneko 100

3. Aurreko bi paragrafoen ildotik zehazten den prestazio ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du izan, inolaz ere, kontratatutako zerbitzu edo zentroaren benetako kostua baino handiagoa.

### **IV. titulua**

#### **Prestazio ekonomikoak aitortu, berraztertu, aldatu, eten eta bertan behera uztea**

##### **12. artikulua. Aplikatu beharreko prozedura**

Ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko prozedura titulu honetan jasotzen diren prozedura-xedapenek arautuko dute, prestazioa aitortzeari nahiz berraztertu, aldatu, eten edo bertan behera uzteari dagokionez.

#### **I. kapitulua**

##### **Prozedura-arau komunak**

##### **13. artikulua. Prozeduraren instrukzioa**

Prestazio-eskabideak idatziz egin beharko dira, eredu ofiziala baliatuz. Eskabidearekin batera, eskatzen den prestazioetako bakoitzeko ezarritako betebeharrak betetzen direla justifikatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Prestazioak tramitatzeke behar duten informazio eta orientabide guztia emango diete gizarte-zerbitzuek eskatzaileei.

##### **14. artikulua. Entzunaldi-izapidea**

Eskatzaileak eskabidean aurkezten dituen gertakari edo frogez gain besterik kontuan hartzen badu Udalak, behar den entzunaldi-izapidea eskainiko dio, egokituz jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

## II. kapitulua

## Prestazio ekonomikoak aitortzea

**15 artikulua. Dokumentazio osagarria**

Prestazio ekonomikoa eskuratzekotan, honako dokumentazio osagarri hau aurkeztu beharko du eskatzaileak, dela zuzenean, dela legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen bitartez:

a) Prestazioa lotuko zaion zentro edo zerbitzu pribatuaren eta prestazioaren titularraren edo haren legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen arteko kontratua edo, halakorik ezean, aurrekontratua. Dokumentu horretan eduki hauek jaso beharko dira, gutxienez: zentroko egonaldiaren edo zerbitzuaren erabileraren hasiera-data, titularrak ordaindu beharko duen hileko prezioa, eta kontratatutako zerbitzuaren edukiaren deskribapena. Kontratuak edo, kasuan kasu, aurrekontratuak mugarik gabeko izaera aurreikusi beharko du, hasierako probaldiaren mende, ordenantza honen 7 b) artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

b) Behar izanez gero, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ordaintzeko titularrak beste pertsona fisiko edo juridiko bati emandako baimena.

Babes-maila osagarria aplikatzerik izan dadin, Udalak ofizios egiaztatuko du erroldaren eta benetako bizilekuaren inguruan ezarritako baldintzak betetzen diren, 5.2. artikuluan adierazten denaren ildotik.

**16. artikulua. Ebazpen-proposamen eta ebazpena**

1. Ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoa emateko ebazpen-proposamenak eta ebazpenak eduki hauek jaso beharko dituzte:

– prestazio ekonomikoa lotuko zaion zerbitzu edo zentroaren identifikazioa,

– ohar bat, non azalduko den prestazioa bertan behera geratuko dela baldin eta gizarte-zerbitzuen udal sarean integratutako izaera bereko zerbitzu edo zentro batean lekurik badago eta prestazioa lotzen zaion zentro edo zerbitzuaren izaerari dagokion lekuak esleitzeko zerrendan ez badago puntuazio handiagoa edukirik zain dagoen eskatzailearik.

– ohar bat, baldin eta alde zuzenetik zerbitzu edo zentroarekin sinatutako aurrekontratua aurkeztu bada, non azalduko den prestazioa benetan ordainduko bada lehenik kontratu formalizatua aurkeztu beharko dela.

– ohar bat, non azalduko den prestazio ekonomikoa berrazter dadila eska daitekeela, zerbatekoa aldatze aldera, ahalmen ekonomikoa aldatuz gero.

Ebazpenean berariaz adieraziko da prestazio ekonomikoaren jarraitutasuna baldintzatuta egongo dela, iraun egin beharko baitute hura ematea ekarri zuten arrazoiek, eskuratzeko baldintzak nahiz ematearen ondorio diren betebeharrak betetzen jarraitu beharko baita, eta ez baitu egokitu beharko bertan behera uzteko beste arrazoirik ere, udal ordenantza honen 25. artikuluan eskubidearen iraupenaren inguruan adierazten denaren ildotik.

2. Dosiera osatu ondoren, alkateak edo hark ordezkari izendatutako zinegotziak ebazpena emango du, gehienez hiru hilabeteko epean —eskabideari Gasteizko Udalean sarrera eman zitzaion egunetik kontatuta—.

Epe hori igarotzen delarik ez bada berariazko ebazpenik eman, administrazio-isiltasun positiboaren eraginak izango ditu, berariazko ebazpena emateko obligazioa gorabehera, zeinek nolahi ere, berretsi egin beharko baitu hura.

Ebazpenean adierazten diren erabakien kontra indarrean dagoen legedian aurreikusten diren administrazio- eta jurisdikzio-errekurtsioak aurkeztu ahal izango dira.



**17. artikulua. Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea sortzea**

1. Pertsonari dagokion prestazio ekonomiko zehatza aitortzen eta esleitzen zaioneko ebazpenaren datatik aurrera izango ditu ondorioak prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubideak, mendetasun-arriskuaren egoeraren edo I. graduko mendetasuna aitortzearen ondorio denak.

2. 1. paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, ebazpenaren data baino geroagoko beste data batean sortu ahal izango ditu ondorioak prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubideak, lotzen zaion zerbitzu edo zentroan sartu edo bertaratu aurretik ematen bada ebazpena. Halakoetan, delako pertsona prestazioa lotzen zaion zerbitzu edo zentrori benetan sartzen edo bertaratzten den egunetik izango ditu ondorioak.

**18. artikulua. Prestazio ekonomikoak ordaintzea**

1. Hilabeteak igaro ahala ordainduko dira prestazio ekonomikoak, urtean 12 hileroko ordaindu ere.

Ordainketa baldintzatuta egongo da, erabiltzailearen edo haren legezko ordezkariaren edo izatezko zaintzailearen eta zerbitzu edo zentroaren arteko kontratua aurkeztu beharko baita alde aurretik aurrekontratua baino aurkeztu ez den kasuetan, 15. artikuluko a) atalean aurreikusitakoaren ildotik.

2. Onuradunak titular izan beharko duen kontu batera banku-transferentzia eginez ordainduko dira prestazio ekonomikoak, salbu eta hurrengo paragrafoan aurreikusten diren egoeretakoren bat egokitzen delarik.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, prestazioa titularrak beste pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzea erabaki ahal izango du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak, prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroaren ordezkari diharduela egiaztatzen duelarik, eta alde aurretik prestazioaren titularrak baimendurik, baldin eta pertsonak prestazioa zertarako eman zaion hartarako ez baliatzeko arriskua badago, eta beti ere legezko ordezkariarik ez badu. Halakoetan —titularrak beste pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzen bazaio—, prestazioa jasotzen duen pertsona edo entitateak idatziz hartu beharko du konpromisoa Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari komunikatzeko gertatzen diren baja edo aldaketak —heriotza, zentro-aldaketa edo beste edozein arrazoi dela medio—.

**19. artikulua. Eskubidearen iraupena**

Ordenantza honetan arautzen diren prestazio ekonomikoen aitortpenari eutsi egingo zaio harik eta:

- a) ematea ekarri zuten arrazoiek dirauten bitartean,
- b) eskuratzeko galdatutako baldintzak betetzen jarraitzen den bitartean,
- c) ematearen ondorio diren betebeharrak betetzen diren bitartean,
- d) ordenantza honen 25. artikuluan arautzen diren bertan behera geratzeko arrazoiatarik egokitzen ez den bitartean.

**III. kapitulua**

Prestazio ekonomikoak berraztertu, aldatu, eten eta bertan behera uztea

**20. artikulua. Aitortutako prestazioak berraztertzea**

1. Ofizios berraztertu ahal izango dira prestazio ekonomikoak edozein unetan.
2. Beste aldeak hala eskatzen duelarik berraztertu ahal izango dira prestazio ekonomikoak baldin eta:
  - a) hura ematea ekarri zuten baldintzetan aldaketarik gertatzen bada, prestazioa jasotzeari eragin diezaiokeenik,

b) titularraren ahalmen ekonomikoan aldaketarik gertatzen bada, prestazio ekonomikoaren zenbatekoan eragin dezakeenik,

c) titularraren beharren edo egoera pertsonalaren bilakaerak aldaketaren bat eskatzen badu, dela prestazio ekonomikoan, dela zerbitzura sarbidea izateari dagokionean.

3. 1. eta 2. ataletan adierazten diren berrazterketetan prestazio ekonomikoaren titularrei edo haien legezko ordezkari edo izatezko zaintzaileari galdatu ahal izango zaie beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkez dezatela, dagozkien baldintza eta betebeharrak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

4. Prestazioaren zenbatekoa aldatzea, prestazio ekonomikoa etetea edo hura bertan behera uztea ekarri ahal izango du berekin prestazio ekonomikoaren berrazterketak, kapitulu honetako hurrengo ataletan aurreikusten den moduan.

### **21. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa aldatzea**

Prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatu ahal izango da baldin eta, aurreko artikuluan arautzen den berrazterketa egiten delarik, agerian geratzen bada:

a) titularraren ahalmen ekonomikoan aldaketa bat izan dela, 11. artikuluan ildotik zehaztutako prestazioaren banako zenbatekoan eragiten duena,

b) mendekotasun-graduan aldaketa bat izan dela, dela berorren berrazterketa baten ondorioz, dela mendekotasun-egoeraren behin-behineko aitortzeaz geroztiko mendekotasun-graduaren balorazio berri beten ondorioz.

### **22. artikulua. Eteteko arrazoiak**

Arrazoi hauengatik etengo da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubidea:

a) Onuraduna ospitale batean sartu delako, 45 egunetik gorako aldi jarraitu baterako, egonaldi luzeagoa eskatzen duten salbuespeneko egoerak salbu.

b) Ondorengo betebeharrak betetzeari dagokionez atzerapenik izanez gero, baldin eta atzerapen hori hilabetetik gorakoa ez bada, horretarako epea bukatzen den egunetik:

— Prestazio ekonomikoa zertarako eman zen, oso-osorik horretarako baliatu dela egiaztatzea.

— Prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzen uztea Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari.

— Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak edo Udalaren dena delako gizarte-zerbitzuak eskatzen duen informazioa eman eta dokumentazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoaren kudeaketarako beharrezko izanez gero.

b) atal honetan aipatzen den atzerapena hilabetetik gorakoa bada, betebeharrak hori ez dela bete ulertu beharko da, eta bertan behera geratuko da prestazio ekonomikoa, ordenantza honen 25. artikuluan aurreikusten denaren ildotik.

### **23. artikulua. Etenaldiaren ondorioak eta iraupena**

Prestazio ekonomikoa eskuratzeko eskubidea eteteak ordainketa etetea ekarriko du berekin, eta data hauetatik aurrera izango ditu ondorioak:

a) Etenaldia ospitalean sartzearen ondorio bada, 22 a) artikuluan aurreikusitako moduan, epea iraungitzen den egunaren biharamunetik.

Ospitaleko egonaldiak iraun bitartean mantenduko da etenaldia, nahiz eta inolaz ere ez sei hilabetetik gorako aldi jarraitu batez —etenaldiak eragina duen egunetik—, epe hori igarotzen delarik bertan behera geratuko baita prestazioa jasotzeko eskubidea besterik gabe, 25. artikuluan aurreikusten denaren ildotik.

b) Etenaldia 22 b) artikuluan adierazten diren betebeharrak betetzeko orduan izandako hilabetetik beherako atzerapenaren ondorio bada, eteteko ebazpenaren datatik. Kasu horretan, hilabetez mantenduko da etenaldia.

#### **24. artikulua. Prestazioaren ordainketa kautelaz etetea**

1. Hurrengo atalean aurreikusten den moduan bertan behera uzteko prozedura hasia izan ala ez, prestazio ekonomikoaren ordainketaren kautelazko etenaldia ezarri ahal izango du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak, ofizioz nahiz beste aldeak hala eskaturik, prestazioa aitortzeko edo mantentzeko baldintzetakoren bat galtzea dakarren egoeraren baten zantzurik antzemanaz gero, edo dena delako prestazio ekonomikoak berekin dakartzan betebeharretakoren bat ez dela betetzen.

2. Halakoetan, prestazio ekonomikoa mantendu, eten edo hura jasotzeko eskubidea bertan behera utzi ebatzi beharko du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak gehienez hiru hilabetez epean, kautelazko etenaldia ezartzea erabakitzen denetik —beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da epe hori kasuaren konplexutasunak justifikatzen badu eta txosten teknikoan hala arrazoitzen bada—.

#### **25. artikulua. Bertan behera uzteko arrazoiak**

Ordenantza honetan arautzen diren prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea bertan behera geratuko da arrazoi hauetakoren bat egokitzen delarik:

- a) Titularra hiltzea.
- b) Prestazioa eskuratzeko ordenantza honetan galdatzen diren baldintzetako edozein, koma nahiz berariazkoa, galtzea.
- c) Titularrak edo haren legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak berariaz uko egitea.
- d) Banakako arretako programa aldatzea, eta horrenbestez erabakitzea prestazioa lotzen zaion zerbitzu mota dagoeneko ez dela egokia onuradunarentzat.
- e) Bateriaezin den zerbitzu edo prestazio ekonomikoren baterako eskubidea aitortzea.
- f) Prestazioaren onuradunaren eta lotua zegoen zerbitzu edo zentroaren arteko kontratu-harremana iraungitzea.
- g) Prestazioaren titularraren justifikatu gabeko absentzia, zentrotik, urtean 45 egunetik gora.
- h) Gizarte-zerbitzuen udal sarean hutsik dagoen leku bat ez onartzea, prestazio ekonomikoa lotua zaion zerbitzuaren izaerari dagokion lekuak esleitzeko zerrendan puntuazio handiagoa edukirik zain dagoen eskatzaileak ez dagoen kasuetan.
- i) Aurreikusitako balio-epea iraungitzea, mendekotasuna behin-behineko izaerarekin aitortua den kasuetan.
- j) Ondorengo betebeharrak ez betetzea, edo hilabetetik gorako atzerapenarekin betetzea, horretarako aurreikusitako epea bukatzen den egunetik:
  - Emandako prestazio ekonomikoak zein baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzen uztea Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailari.
  - Prestazio ekonomikoa zertarako eman zen, oso-osorik horretarako baliatu dela egiaztatzea.
  - Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak edo Udalaren dena delako gizarte-zerbitzuak eskatzen duen informazioa eman eta dokumentazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoaren kudeaketarako beharrezko izanez gero.
- k) Dokumentazio osagarrian ageri behar duten datuak edo informazioa ezkutatu edo faltsutzea.

l) Sei hilabetetik gorako etenaldi jarraitua igarotzea, eragina izaten hasi zen egunetik.

Aurreko paragrafoetan adierazi diren kasuetan, salbu eta hil egin bada, entzunaldia emango zaio onuradunari, hamabost egunez, non eta onuradunaren eskubidea iraungi aurretik prestazioaren kautelazko etenaldia ezarri ez bada, arrazoiak eman eta alegazioak aurkezteko epeak azaltzen zaizkiolarik, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikuluan aurreikusitako moduan.

#### **26. artikulua. Bertan behera geratzearen ondorioak**

1. Prestazioa ordaintzeari uztea ekarriko du berekin eskubidea bertan behera geratzeak.
2. Bertan behera uzteko arrazoiak egokitzen den datatik izango ditu ondorioak prestazio ekonomikoak bertan behera geratzeak.
3. Aurreko artikuluko k) atalean adierazitako arrazoiagatik geratzen bada bertan behera prestazioa, titularrak ez du ordenantza honetan arautzen den prestazio ekonomikoa berriro eskatzeko aukerarik izango urtebeteko epean, hura bertan behera geratzen den egunetik.

### **V. titulua**

#### **Jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea**

#### **27. artikulua. Jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea**

1. Baldin eta aldatu, eten edo bertan behera uzteko prozeduraren ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik egiaztatzen bada behar ez zelarik jaso direla ordenantza honetan arautzen diren prestazio ekonomikoak, edo behar ez zen zenbatekoa jaso dela, titularrak itzuli egin beharko du, salbu eta itzultzeko eskatzeko ekintza iraungia bada, 29 artikuluan aurreikusitako moduan.
2. Uste bada behar ez zelarik jaso dela prestazioa kasuren batean, edo behar ez zen zenbatekoa jaso dela, itzultzeko obligazioa ezarriko dio onuradunari hori erabakitzen deneko ebazpenak.

#### **28. artikulua. Jaso behar ez ziren prestazioak itzularazteko prozedura**

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetako edozein egokitzen delarik, behar ez zelarik jasotako prestazioak edo zenbatekoak itzularazteko prozedurari ekingo dio Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak.
2. Prozedurari ekin ondoren, abiarazi duela jakinaraziko dio Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak titularrari, eta orobat hori funtsatzen duten arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak, eta ebatzi eta jakinarazteko epea. Egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek, gehienez hilabeteko epean, jakinarazten zaien egunetik.
3. Alegazioak jasotzen direlarik, edo adierazitako epea alegaziorik aurkeztu gabe igarotzen, behar den ebazpena emango du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak, gehienez hilabeteko epean, eta bertan zehaztuko, eta arrazoituko, behar ez zelarik jaso den prestazioa ala ez, edo zein izan den behar ez zelarik jaso den zenbatekoa.
4. Irizten bada kasuren batean behar ez zela jaso dela prestazioa, edo behar ez zen zenbatekoa jaso dela, dena delako zenbatekoak itzultzeko obligazioa deklaratu da aurreko paragrafoan aurreikusitako ebazpenean, eta interesdunak obligazio hori gauzatzeko izango duen gehieneko epea finkatuko, baita, halakorik denean, ordainketa zatikatzeko erabakiaren ildotik zenbat hilabetez eta hilean zein kopuru itzuli beharko den ere. Hori gauzatzeko aldera, ofizioz konpentsatu edo hilabetez hilabete deskontatu ahal izango du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak titularrak jasotzen ari den prestazio ekonomikoetatik.

#### **29. artikulua. Itzularazteko prozeduraren iraungipena eta preskripzioa**

1. Aurreko artikuluko 3. paragrafoan aurreikusten den itzularazteko prozedura ebazteko ezarritako epea igarotzen delarik berariaz ebatzi eta jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, eta ebazpena ematen delarik jarduerak artxibatzeke agindu beharko du. Interesdunari egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik gelditu bada prozedura, eten egingo da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa.

2. Behar ez zela jasotako zenbatekoak itzultzeko obligazioa preskribatu egingo da —administrazioak erreklamatzeko ez bada— bost urteko epea igarotzen delarik, ez betetzea egiaztatzen denean Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontuzko Jaurbideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren ildotik eman beharreko ebazpena gorabehera.

## VI. titulua

### Prestazio ekonomikoen eta arretaren kalitatearen jarraipena

#### 30. artikulua. Prestazio ekonomikoen jarraipena

1. Prestazio ekonomikoen jarraipena egingo du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak, zertarako eman ziren horretarako baliatzen direla egiaztatze aldera, eta, halaber, titularrak, prestazio ekonomikoak direla medio, intentsitateari nahiz kalitateari dagokionez beren beharrei erantzuten dien arreta egokia jasotzen dutela.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, aitortu zitzaion prestazio ekonomikoa zertarako baliatu duen modu frogagarrian egiazta dezala galdatu ahal izango dio Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak prestazio ekonomikoaren titularrari edo haren legezko ordezkari edo izatezko zaintzaileari.

3. Oro har, urtean gutxienez jarraipen bat egingo da. Era berean, jarraipenak maizago egitea erabaki ahal izango da, jasotzaileengan berriazko zirkunstantziak egokitzen direlarik.

4. Halaber, ofizioz berraztertu ahal izango du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak prestazio ekonomikoaren banako zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartu zen ahalmen ekonomikoa.

#### 31. artikulua. Jarraipenaren xedea

Xede hauek izango ditu jarraipenak:

a) Prestazio ekonomikoaren titularrak hark lotzen duen zerbitzu edo zentroaren erabiltzaile izaten jarraitzen duela egiaztatzea.

b) Prestazio ekonomikoaren titularrari ematen zaion laguntza eta horien intentsitatea eta kalitatea haren premietara behar bezala egokitzen direla egiaztatzea.

c) Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuen zentroak baimentzearen ardura duen foru-zerbitzuari kontsulta eginez, prestazio ekonomikoa lotzen zaion zerbitzu edo zentroak baimen hori emateko eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren markoan akreditatzeko galdatutako baldintzak betetzen jarraitzen duela egiaztatzea.

#### Xedapen gehigarriak

##### Lehen a. Salbuespen-egoerak

Salbuespen gisa, zirkunstantziek hala eskatzen dutelarik, eta txosten teknikoek hala baloratu eta justifikatzen, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak salbuespen hauek aplikatu ahal izango ditu:

a) Zehaztutako prestazioen gaineko zenbateko osagarri bat eman, ordenantza honen 12. eta 13. artikuluan xedatutakoaren ildotik, horiek, kasuan kasu, eta Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren iritziz, ikuspegi sozioekonomikotik salbuespeneko babes-gabezia dauken pertsonen aplikatu beharrekoak gertatzen direlarik, eguneko arreta-zerbitzu batean edo adinekoentzako ostatu emateko zerbitzu batean —zainpeko apartamentua edo etxebizitza komunitarioan— sartzeko aukera emate aldera.

Ondorengo zirkunstantziak —guztiak batera— egokitzen direlarik ulertuko da prestazioa jasotzeko eskubidea duen adinekoa ikuspegi sozioekonomikotik salbuespeneko babes-gabezia dagoela:

— Pertsonak eguneko arreta-zerbitzuan edo adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuan sartzeko beharra edukitzea, bere beharrei erantzuteko eta bere egoerak eskatzen duen laguntza emateko alternatiba bakarra izaki. Halakoetan, dena delako zentro edo zerbitzua mendetasuna duen pertsonari laguntza emateko alternatiba egoki bakarra dela justifikatzeko, txosten teknikoa egin beharko da, eta administrazio-dosierrean jaso.

— Haren ahalmen ekonomikoa, kasuan kasu eta aplikatzekoak diren neurrian 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoaren arabera zehazten den prestazioaren zenbatekoa gehituta, dena delako zentro edo zerbitzuaren prezioa ordaintzeko nahikoa ez izatea, edo, nahiko ahalmen ekonomikorik eduki arren, pertsonak ez edukitzea nahikoa likideziazik prezio hori ordaintzeko, egoera horiek Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalean nola zehazten diren aintzat harturik. Halakoetan, baloratu egin beharko da dena delakoak nahiko ahalmen ekonomikorik edo likideziazik ez daukala; txosten teknikoa egin beharko da, eta administrazio-dosierrean jaso.

Salbuespenezko babes-gabezia balioztatzeko, aipatutako irizpide horiez gain kontuan hartu ahal izango dira prestazioa jasotzeko eskubidea duen pertsonaren ohiko bizilekuaren bizigarritasun- edo ekipamendu-baldintza ezegokiak, baita traba arkitektonikoak izatea ere.

Kasu guztietan, a) atal honetan arautzen den zenbateko osagarriak ordainketa atzeratzea ekarriko du berekin, eta zorra onestea, eta Udalaren gizarte-politiken kudeaketan eskumena duen sailak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen udal araudian horien inguruan jasotzen diren aurreikuspenak aplikatuko zaizkio horri.

b) Aurreko atalean azaldu diren egoeretan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eman ahal izango da, arnasa hartzeko modalitatean, Udalaren gizarte-zerbitzuen saretik kanpoko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuen eta adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuen — zainpeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak— arnasa hartzeko zerbitzuetara sartzeko, horien kostua finantzatzen laguntzeko, eta orobat laguntzeko mendekotasuna aitortua duen pertsona baten ohiko zainzaileak izanik egun batzuk behar dituztenei, atsedena hartzeko, etxebizitzan eraberritze-obra egiteko, ospitalean sartzeko edo antzeko beste zerbaitezarako.

Horri dagokionez, urtean gehienez 45 eguneko denbora-muga aplikatuko da. Arnasa hartzeko denbora hori modu jarraituan baliatu ahal izango da, edo gehienez urtean hiru alditan.

Bigarrena. Beste zerbitzu batzuen estaldura

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren planifikazioaren ildotik, eta Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren eskumeneko edozein zerbitzuren estaldura lortze aldera, zerbitzu jakin bat aldi batez estali ezin delako une jakin batean arriskuan legokeen kasuetan, zerbitzu horretara abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 16. d) artikuluan arautzen den banako prestazio lotuaren bitartez sartzeko aukera baloratuko da, hartara hori bermatzea lortzeko, non eta ez dagoen sailaren kontura egiterik.

Xedapen iragankorra

Mendetasun-maila aintzat hartzea

Ordenantza honetan I. mendekotasun-gradua aipatzen delarik, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuan jasotzen ziren mailak kendu aurretik baloratuak izan ziren pertsonen gradua eta maila aipatzen dela ulertu beharko da, harik eta horien mendekotasun-egoera berraztertzen ez den bitartean; hala egiten bada, berriz, gradua baino ez da adieraziko balorazio berrian.

Udalaren gizarte zerbitzuen egokitzapena

Udalaren gizarte-zerbitzuak egokitzeko egutegi bat aurkeztuko du Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak hiru hilabeteko epean, baliabide propioekin estaltzeko adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuak eta adinekoentzako ostatu emateko zerbitzuak — zainpeko apartamentuak eta etxebizitza komunitarioak—.

### Azken xedapena

#### Lehena. Ordezko erregimena

1. Ordenantza honetan berriaz aurreikusten ez den guztian, zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoetan xedatutakoa aplikatuko da.

2. 1. paragrafoan berriaz aurreikusten ez den guztian, hauetan jasotzen diren xedapenak aplikatuko dira, osagarri: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean; Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan; Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean —4/1999 Legean emandako idazkuntza—, baita horiek garatzeko xedapenak, eta, indarrean egonik, horiekin bat datozen edo bidezko diren gainerako lege-xedapenak ere.

3. Oro har, arau espezifikoak egiten zaizkien erreferentziak, estatalak, autonomikoak edo foralak izan, unean-unean arlo horietan indarrean dagoen araudiari erreferentzia egiten diotela ulertu beharko da.